



Haurreskoletako egoeraren aurrean mobilizazio bidea jarraitzea baino ez dugu

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok gaur kontzentratu gara EAEko Hezkuntza Ordezkaritzen aurrean Haurreskolak Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritzari negoziatzeko mahaia ireki dezan exijitzeko.

Orain arte izan ditugun erantzunak Haurreskolak Partzuergoko gerentea den Zorione Etxezarragarengandik protestak isilarazteko mugimenduak izan dira, eta ez langileekin eseri eta benetako negoziazioa irekitzeko. Hezkuntza Sailaren partetik, berriz, gutxiespena baino ez dugu jaso, aurreko urriaren 28an Zuzendaritza Batzordea burutu ostean, oraindik ez baitugu esan mahai horretan egon beharko lukeen ordezkaria izendatu duten, ezta mahaia noiz deituko duten.

Aurreko mobilizazio bezperan, ezer ez negoziatzeko bilera batera deitu bagintuen ere, honako honetan Etxezarragak, berriz ere aldebakarrez, Zuzendaritza Batzordearen onespenerekin, ordezkoen baremazio-birbaremazio prozesua datorren astean irekiko dela iragarri du. Berriz ere aldebakarrez harturiko neurria izan da, alde sozialarekin inolako negoziazio eta adostasunik gabe. Ezin baitugu negoziatiazotzat hartu e-postaz iradokizunak bidaltzeko irekitako epea, elkarrizketarako aukerarik gabe.

Bitartean, lan-hitzarmena eta beste akordioak urratzen dituzten erabakiek langileen eskubideak urratzen ari direla salatu behar dugu: desplazamenduak, ordezkapen eza edota aparteko orduen erabilera ankerra,...Hori dela eta, egoeraren larritasuna dela eta, honako hau exijitzen diegu bai Haurreskolak Partzuergoko gerenteari zein EAEko Hezkuntza Sailari:

- Benetako negoziazioa abiatzea.
- Haurreskoletako langileei eta hezkuntza-proiektuaren bilakaerari eragiten dieten aldabakarrez hartutako neurriak berehala indargabetzea; besteak beste, haurreskola batetik bestera etengabeko langileon desplazamenduak eta aparteko orduak.
- Hezkuntza Saileko ordezkarri batek haurreskoletako mahai negoziatzailetan parte hartzea.
- Haurreskoletako lan hitzarmena eta bestelako araudiak betetzea.

Hurrengo astelehenean, hilak 9, Gasteizko Legebiltzarraren Hezkuntza batzordean hiru sindikatuok bizi dugun egoera azaltzen dugun bitartean, kanpoaldean elkarretaratzea burutuko dugu.

Berandu baino lehen mahai negoziatzailea deitu ezean, mobilizazio dinamika indartzen joango gara.

Euskal Herrian, 2020ko azaroaren 4an.



Sólo nos queda la vía de las movilizaciones ante la situación de las Haurreskolak

Los sindicatos LAB, Steilas y ELA nos hemos concentrado hoy ante las Delegaciones de Educación de la CAV para exigir al Consorcio Haurreskolak y al Gobierno Vasco que abran una mesa de negociación.

Las respuestas que hemos tenido hasta ahora por parte de la gerente del Consorcio Haurreskolak, Zorione Etxezarraga, han sido movimientos para silenciar las protestas no para sentarse con las trabajadoras y abrir una verdadera negociación. Por parte del Departamento de Educación, sólo hemos recibido menosprecio, ya que, tras la celebración de la Junta Directiva el pasado 28 de octubre, todavía no se nos ha comunicado si se ha nombrado a la persona que le representará en esa mesa negociadora, ni cuándo se va a convocar la misma.

Si en vísperas de la anterior movilización nos convocaron a una reunión para no negociar nada, ahora Etxezarraga ha anunciado, con la aprobación de la Junta Directiva, que la próxima semana se abrirá el proceso de baremación y rebaremación de las personas que opten a una sustitución. Ha vuelto a ser una medida adoptada unilateralmente, sin ningún tipo de negociación ni consenso con la parte social. Porque no podemos considerar una negociación el plazo abierto para enviar sugerencias por e-mail, sin posibilidad alguna de diálogo.

Mientras tanto, debemos denunciar que las decisiones que van contra el convenio y otros acuerdos están vulnerando los derechos de las trabajadoras: desplazamientos, falta de sustituciones o un uso abusivo de las horas extraordinarias, por lo que, dada la gravedad de la situación, exigimos tanto a la gerente del Consorcio Haurreskolak como al Departamento de Educación de la CAPV:

- Iniciar una verdadera negociación.
- La inmediata derogación de las medidas unilaterales que afectan al personal de las Haurreskolak y al desarrollo del proyecto educativo, tales como los desplazamientos de este personal de una escuela a otra y las horas extraordinarias.
- Participación de una persona en representación del Departamento de Educación en las mesas negociadoras de las Haurreskolak.
- Cumplimiento del convenio laboral y otros reglamentos de Haurreskolak.
-

El próximo lunes, día 9, mientras explicamos en la comisión de Educación del Parlamento de Vitoria la situación que vivimos los tres sindicatos, llevaremos a cabo una concentración en el exterior.

Si no se convoca una mesa negociadora a la mayor brevedad, anunciamos que iremos reforzando la dinámica de movilizaciones.